



**2009KO ABENDUAREN 4AN EGINDAKO OHIKO OSOKO
BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA SESION PLENARIA EXTRAORDINARIA
CELEBRADA EL DIA 4 DE DICIEMBRE DE 2009**

**ALKATE-UDALBURUA
ALCALDE-PRESIDENTE**

D. David Latxaga Ugartemendia jn.

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES ASISTENTES:

D^a Amagoia Madariaga Olea and.
D. Alberto Gallastegi Abendibar jn.
D. Anartz Gandiaga Zarazua jn.
D^a Sara Chamizo Diez and.
D. Andoni Agirrebeitia Abendibar jn.
D. Iñigo Artetxe Arrieta jn.
D^a Karmele Aurtenetxe Elorriaga and.
D. Iñigo Bilbao Rekagorri jn.
D. Antonio Castellet Conesa jn.
D. Alberto Borobia Conde jn.
D^a Alicia Eugenia Hernandez Cid and.
D^a Belen Saralegui Valero and.
D. Vicente Julian Silva Gonzalez jn.
D. Miguel Rodriguez González jn.
D. Javier Atxurra Gojenola jn.
D^a Beatriz Calvo Fernández and.

**IDAZKARI NAGUSIA
LA SECRETARIO GENERAL**

D^a Teresa Virto Larruscain and.

**LA TÉCNICO DE ADMINISTRACIÓN GENERAL
ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA**

D^a Jasone Ibarra Unzueta and.

**UDAL FONDOEN KONTU-HARTZAILEA
LA INTERVENTOR DE FONDOS MUNICIPALES**

D^a Cristina Bilbao Salterain and.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Amorebieta-Etxanoko udaletxeko batzar-aretoan, bi mila eta bederatziko abenduaren lauan, goizeko zortzi eta erdietan, David Latxaga Ugartemendia alkate-udalburu jaunaren agindupean, aktaren hasieran aipatu diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, agiria izenpetu duen Teresa Virto Larruscain idazkari andreakin, horretarako deialdia egin delarik, ezohiko osoko bilkura egiteko. Bertan izan da baita ere Cristina Bilbao Salterain Udal Funtsen Kontuhartzailea.

Alkate jaunaren aginduz bilerari hasiera emanda, saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udalbatzako kide guztiei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

**1.- LARREA ESKOLA
PUBLIKOAREN ALBOAN DAGOEN
PARTZELAKO KIROL PISTA
ESTALTZEKO PROIEKTUAREN
LANAK HASIERA BATEAN
ONESTE, HALA BADAGOKIO.
(ESP.: 09-4510).**

Aztertu da “Larrea” Ikastetxe Publikoari atxikitako lurzatian kirol anitzeko pista estaltzeko obren proiektua.

OINARRIA: Kontuan hartu dira espedientean dauden txostenak.

OINARRIA: Osoko Bilkuraren eskumena da gai honen ebazpena, urriaren 30eko 30/2.007 Legearen bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.

OINARRIA: KONTUAN IZANIK Hirigintza eta Etxebizitza Informazio Batzordeak emandako irizpena.

Udalbatzak, aho batez, honakoa erabaki du:

ERABAKIA:

LEHENENGOA: Hasieran onetsiko da kirol anitzeko pista estaltzeko

En el Salón de Sesiones del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano a las ocho horas y treinta minutos del día cuatro de Diciembre de dos mil nueve, bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente D. David Latxaga Ugartemendia se reunieron los Sres/Sras. Concejales que al comienzo del acta se expresan, con asistencia de la suscrita Secretario General, D^a Teresa Virto Larruscain, con el fin de celebrar sesión Plenaria Extraordinaria, previa convocatoria cursada al efecto, estando presente también la Interventor de Fondos Municipales, D^a Cristina Bilbao Salterain.

Abierta la sesión de orden del Sr. Alcalde, se somete a la consideración de la Corporación los asuntos comprendidos en el Orden del Día de la presente sesión sobre los cuales se adoptaron los acuerdos siguientes:

**1.- APROBACIÓN INICIAL, SI
PROCEDE, DE LAS OBRAS DEL
PROYECTO DE CUBRIFICIÓN PISTA
POLIDEPORTIVA EN PARCELA
ANEXA AL COLEGIO PÚBLICO
“LARREA”, (EXP.: 09-4510).**

Examinado el Proyecto de las obras de cubrición pista polideportiva en parcela anexa al Colegio Público “Larrea”.

CONSIDERANDO los informes obrantes en el expediente.

CONSIDERANDO que, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición adicional segunda de la Ley 30/2.007, de 30 de octubre, es competencia del Pleno la resolución del presente asunto.

CONSIDERANDO el Dictamen emitido por la Comisión Informativa de Urbanismo y Vivienda.

La Corporación por unanimidad

ACUERDA:

PRIMERO: Aprobar inicialmente el Proyecto de las obras de cubrición pista



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

obren proiektua, “Larrea” Ikastetxe Publikoari atxikitako lurzatian. Horren aurrekontua 439.996,49 €koa da (BEZa barne), eta egiteko epea, berriz, 12 astekoa.

BIGARRENA: Proiektua jendaurrean azalduko da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki-oholean eta udalaren web gunean argitaratuko den iragarkiaren bidez, BAO n argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita hogeit eguneko epean egokitzen jotzen diren alegazio guztiak aurkeztu ahal izateko.

HIRUGARRENA: Jendaurrean azaltzeko epean inolako alegaziorik aurkeztu ez bada, aipatutako proiektua behin betiko onetsi dela ulertuko da, bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

Borobia jauna eta Saralegi andrea salatik irten dira.

2.- BI-4327 FORU-ERREPIDEAREN 19+470 KP REN ETA 21+360 KP REN ARTEKO TARTEA LAGATZEKO ESKARIA BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO HERRILAN SAILARI, ETA BERORRI DAGOKION LANKIDETZA HITZARMENAREN ONESPENA. (ESP.: 09-5133).

Egokia da udal honek BI-4327 foru-errepidearen lagapena eskatzea (19+470 kp eta 21+360 kp bitartean), horren xedea hirigunetik hainbat auzotara iristea delako. Horrez gain, horrek zenbait udal-jarduera egitea ahalbidetuko luke errepidearen inguruko aldeetan.

OINARRIA: Bizkaiko Errepideei buruzko otsailaren 18ko 2/93 Foru Arauaren 6. artikuluan xedatutakoa.

OINARRIA: Azaroaren 26ko 30/92 Legearen 6. artikuluan eta apirilaren 2ko 7/85 Legearen 57. artikuluan

polideportiva en parcela anexa al Colegio Público “Larrea”, cuyo presupuesto asciende a 439.996,49 € (IVA incluido) y un plazo de ejecución de 12 semanas.

SEGUNDO: Exponer al público el proyecto mediante anuncio que se publicará en el Boletín Oficial de Bizkaia, Tablón de anuncios y Web del Ayuntamiento para que en un plazo de veinte días a partir de la publicación en el B.O.B. puedan presentar cuantas alegaciones estimen oportuno.

TERCERO: El citado Proyecto se entenderá definitivamente aprobado, sin necesidad de nuevo acuerdo, si en el plazo de exposición al público no se presenta alegación alguna.

Se ausentan del Salón de Sesiones los Sr@s. Borobia y Saralegi de EE-PSE.

2.- SOLICITUD AL DEPARTAMENTO DE OBRAS PÚBLICAS DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA DE CESIÓN DE LA CARRETERA FORAL BI-4327, DEL P.K. 19+470 AL P.K. 21+360 Y APROBACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN CORRESPONDIENTE A LA MISMA (EXP. N° 09-5133)

Dada la conveniencia de solicitar por parte del Ayuntamiento la cesión de la carretera foral BI-4327 del p.k. 19+470 al p.k. 21+360 puesto que su finalidad es acceder a diversos barrios desde el casco urbano y ello permitiría diversas actuaciones municipales en las zonas cercanas a la carretera.

CONSIDERANDO lo dispuesto en el Art. 6 de la Norma Foral 2/93, de 18 de febrero, de Carreteras de Bizkaia.

CONSIDERANDO lo dispuesto en el Art. 6 de la Ley 30/92, de 26 de Noviembre y Art. 57 de la Ley 7/85, de 2 de



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

xedatutakoa.

OINARRIA Obra eta
Zerbitzuetako Informazio Batzordeak
emandako irizpena.

Jarraian gaia eztabaidatzeari ekin
zaio.

Calvo and., PP:

Lehenik, esan behar dut osoko
bilkura hau arraro samarra dela. Lehen
puntua Eusko Jaurlaritzari diru-laguntza
bat eskatzeko da. Eusko Jaurlaritzari diru-
laguntza bat eskatzearekin batera egiten
den proiektua da. Eta bigarren puntu hau
Foru Aldundiak emango digun diruari
buruzkoa da. Egia esan, ondo etorria izan
dadila diru guztia; izan ere, egungo egoera
kontuan hartuta eta, dirudienez, datorren
urtean iturri asko itxiko denez, egia esan,
diru guztia gutxi izango da. Batzordean,
abstenitu egin ginen, azaldu nuenez,
Aldundian errepideen gaiaz arduratzen
den gure jendearen sailean zerbait gauza
galdetu genituelako. Eta gero, elurra
eginez gero zer gertatuko litzatekeen
galdetzeko ere deitu nuen; alegia,
mantentze lanez zein arduratuko zen
jakiteko. Dena azaldu didate. Hortaz,
aldeko botoa emango diegu lagapen horri
eta lankidetzaren hitzarmenari.

Ez dakit biak bozkatu ziren edo
hau nolakoa den.

Alkate jn.:

Eskaera, eta gero lankidetzaren
hitzarmenarena bozkatuko da. Badakizue
memoria bat balioetsita dagoela. Gure
kontu geratuko zen proiektua egitea.
Aurreproiektu moduko bat egin da. Orain,
proiektua egin beharko litzateke, eta
Aldundiak hura ikusi eta onartu beharko
luke, eta gero, dirua eman.

Atxurra jn., EA:

Badakit Aldundiak azken aldi
honetan diru gutxi duela, baina uste dut,

Abril

CONSIDERANDO el Dictamen
emitido por la Comisión Informativa de
Obras y Servicios

Seguidamente se procedio a debatir
el asunto:

Sra. Calvo del PP:

*Lo primero que tengo que decir es
que, este pleno si que es un poco extraño.
El primer punto es para solicitar una
subvención al Gobierno Vasco. Es un
proyecto que va con una solicitud de una
subvención al Gobierno Vasco. Y este
segundo punto, es que nos van a dar dinero
la Diputación Foral. La verdad, bien
venido todo el dinero que venga, porque,
con lo que esta cayendo y como parece que
se van a cerrar bastantes grifos el año que
viene, la verdad que todo dinero va a ser
poco. Nos abstuvimos en la Comisión,
como comente, porque queríamos
preguntar algunas cosas en el
departamento de nuestra gente que lleva
carreteras en Diputación, y luego también
llame para preguntar el tema de que es lo
que ocurría en caso de que nevara, ¿quien
va a mantener?, Ya me lo han explicado
todo. Así que nosotros vamos a votar
favorablemente a esta cesión y al convenio
de colaboración.*

*No se si se voto los dos o como es
esto.*

Sr. Alcalde:

*La solicitud y luego se vota el
convenio de colaboración. Sabéis que hay
una memoria valorada, quedaría a nuestro
cargo hacer el proyecto. Es una especie de
anteproyecto, lo que se ha hecho, ahora
quedaría hacer el proyecto y que la
Diputación también lo vea, lo apruebe y
luego la entrega del dinero.*

Sr. Atxurra de EA:

*Ya se que la Diputación
últimamente anda un poco floja de dinero,*



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

futboleko esamolde bat erabiliz, ez dugu berdinketa lortu. Arbitroak etxekoen aldekoak zirela kontuan izanda, ni erdia gutxienez lortzen saiatuko nintzen. Ez da asko eskatzea. Nire ustez, motz samar gelditu zarete, motz samar. Aldeko botoa emango dut, jakina, nola ez. Nahiz eta lehen eta bigarren puntuekin milioi bateko zuloa egingo dugun. Baina, tira, zertarako nahi dugun dirua? Alde.

Alkate jn.:

Ez dugu milioi bateko zulorik egingo. Egunen batean azalduko dizut.

Silva jn., EB-B:

Guk proiektu hau duela urte batzuk eskatzen hasi ginela berritsi nahi dugu, besterik ez. Uste dut, oker ez banago, konponbide hori aurreko aurrekontuan egiten saiatuko zirela agindu zigutela. Pozik hartzen dugu, Etxanoko auzokoengatik, baina baita errepide hori erabiltzen duen jende guztiagatik. Espero dezagun orain bidegorria erabiltzea eta Etxanon sartzeko bide hobea izatea.

Borobia jn., PSE-EE:

Bueno, nire boto jarrera azalduko dut. Obra eta Zerbitzu Batzordean, aldeko botoa eman nuen, baina zenbait erreserbarekin, jakitera eman nuenez. Bi arrazoiengatik. Lehenengo eta behin, une hartan ez zitzaidalako egokia iruditzen, kontu handiz aztertu gabe, diru-laguntza garrantzitsu hori galtzea. Bigarrenik, ordena baten barruan, beharrezkotzat jotzen nuelako harekin lotuta teorian lortuko zen hobekuntza. Egoera horretan, behin proposamena aztertuta, baina zenbait kausa soziopolitiko direla medio nire iritzia taldekideei azaldu gabe, hau izango da nire boto jarrera: ez dut bozketa honetan parte hartuko, eta osoko bilkuratik irtengo naiz. Besterik gabe, nire jarrera ulertu duzelakoan, akta eta kopia ematen ditut, eta altxatu egiten naiz.

pero creo que en el símil futbolístico no hemos llegado al empate. Teniendo en cuenta que los arbitros eran caseros, yo al menos hubiese intentado sacar la mitad, tampoco es que sea tanto. Creo, que os habéis quedado flojitos, flojitos. Voy a votar a favor, claro, como no. A pesar del millón de agujero que hacemos con el primer y el segundo punto. Pero bueno, para que queremos el dinero. A favor.

Sr. Alcalde:

No hacemos un millón de agujero. Algún día te explicaré.

Sr. Silva de EB-B:

Nosotros nada, reafirmar que este proyecto ya lo llevamos pidiendo unos años. Esta solución se nos prometio que se iba a intentar hacer en el presupuesto pasado, creo recordar. Recibirla con alegría, no solo por los vecinos de Etxano, sino por toda la gente que utiliza esa carretera, que esperemos que ahora utilice el bidegorri y un mejor acceso a Etxano.

Sr. Borobia del PSE-EE:

Bueno voy a dar mi explicación de posicionamiento del voto. En la Comisión de Obras y Servicios mi posición del voto fue favorable con reservas, tal y como lo hice constar. Por dos razones, primero, no me parecía oportuno en ese momento, si analizarlo detenidamente, la posibilidad de la perdida de una subvención tan importante como la que se nos presentaba. Segundo, por considerarlo necesario dentro de un orden la posibilidad de mejora que en teoría se les asociaría. Ante esta situación, una vez analizada la propuesta sin haber podido compartir mi opinión con la de mis compañeros de grupo, por diferentes razones de carácter socio político, es por lo que mi posición en el voto de este punto va a ser la de no participación en el mismo, ausentandome del pleno. Sin otro particular dandose por entendida mi posición, entrego



Alkate jn.:

Borobia jauna eta Saralegi andrea irten dira. Antonio, zuk duzu hitza.

Castellet jn., PSE-EE:

Argi gera dadila guk ere nahi dugula, gogotsuenek bezala, Etxano auzoaren irisgarritasuna gaur egungoa baino hobea izatea. Izan ere, noiz edo noiz, gure taldeak proposatu izan du espaloi bat auzoraino egitea, eta ardura Aldundiarena dela izan da erantzuna. Guk ere badugu Etxanoko auzokideen bizi kalitatea hobetzeko interesa, baina, interes hori alde batera utzita, ez dugu ulertzen zer beste interes izan dezakeen Udalak hitzarmen hori sinatzeko. Gainera, gure ustez, hitzarmen horrek kalte egiten die Udalaren interesei. Izan ere, guretzat dira betebeharrak guztiak, eta betirako, eta trukean, 600.000 euro ematen dizkigute. Hori bai, klausula batean dirurik geratuz gero Aldundiari eman behar zaiola jasotzeko lotsagabekeria izan dute. Gainera, ondo baino hobeto daki diru hori ez dela nahikoa, ezta lanak egiten hasteko ere. Gure taldeak uste du Aldundia bultzatu beharko zela gutxienez obraren kostu osoa ordaintzera. Nahiz eta gero Udalari eman. Izan ere, gure udalerrirako onartuta dagoen bideragarritasun eta sarbide proiektuaren esparruan egin zitekeen. Jakin nahiko genuke zer gertatuko zen Aldundia EAJk gobernatu beharrean PSE-EEK gobernatu bala, gure herriarentzat ekonomikoki hain kaltegarrian den hitzarmen hori lortuko zen. Gure taldeak hitzarmenaren kontra bozkatuko du. Baina, halaber, argi utzi nahi dugu gobernu taldeak gure laguntza izango duela, Aldundiari presioa egiteko eta obra osoa ordain dezaten eskatzeko. Modu ona izango litzateke auzokideei autobideko ordainlekuan sobera kobratu zaiena itzultzeko. Eta horretaz ari garela,

acta, copia y me levanto.

Sr. Alcalde:

Se ausentan tanto el Sr. Borobia, como la Sra. Saralegi. Antonio, tienes la palabra.

Sr. Castellet del PSE-EE:

Que quede claro que nosotros queremos como el que más que la accesibilidad al barrio de Etxano sea mejor que la actual. De hecho alguna vez, nuestro grupo, ha propuesto el hacer una acera hasta el barrio y la respuesta fue que pertenecía a la Diputación. A parte del interés por mejorar la vida de los vecinos de Etxano, que compartimos, no entendemos que otro interés puede tener el Ayuntamiento para firmar este convenio, un convenio que entendemos que es leonino para los intereses del Ayuntamiento. Donde todas las obligaciones son para nosotros y para siempre y a cambio nos dan 600.000 euros. Eso sí, con la desfachatez de poner como una cláusula diciendo que, si sobra dinero tendrá que volver la Diputación. Cuando sabe de sobra que con ese dinero no da ni para empezar la obra. Nuestro grupo cree que se debería haber presionado a la Diputación, para que, cuando menos, pague el coste total de la obra. Aunque luego se cediera al Ayuntamiento y lo podía haber hecho dentro del proyecto de viabilidad y acceso que está aprobado para nuestro municipio. Nos alberga la duda de si en lugar de gobernar la Diputación el PNV, fuera el PSE-EE, se habría alcanzado este acuerdo, tan ruinoso económicamente para nuestro pueblo. Nuestro grupo va a votar en contra del convenio. Pero también queremos dejar claro que puede contar con nosotros para presionar a la Diputación y pague el coste total de la obra. Sería una buena forma por su parte de devolver a los vecinos lo que le ha cobrado de más en el peaje. Que por cierto, se decía que era para mejora de otras carreteras, que lo cumplan con la de



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

bidesaria beste errepide batzuk hobetzeko erabiliko zela esaten zen, eta hortaz, Etxanoko errepidearekin bete dezatela. Agian, oker gaude eta botoa alda dezakegu, baina proiektu honen kostua zenbatekoa izango den jakin beharko genuke. Aldundiak «proiektuaren kostua ordainduko dugu» esaten badu, gu ados egongo gara. Baina ezin dira betebeharrak Amorebieta-Etxanoko Udalaren kargura utzi, 600.000 euro soilik emanaz. Ez dut uste ideia ona denik, irizpide horri jarraituz gainerako errepide guztiak ere gure kargura utz baititzakete. Uste dut kostua askoz handiagoa izango dela, hortik beste zerbait ez badago, bederen, eta azaltzen ez badidazu.

Alkate jn.:

Jakina, ez dago hitzarmenean azaltzen denaz bestelakorik. Baina nik uste dut eskaintzen dizkiguten diru kantitateak gutxiesten ari zarela, baita proiektua, proiektuaren memoria balioetsia eta behin betiko proiektua ere. Uste dut bidegorriaren erdia baino gehiago finantzatu dela edo finantzatu ahal izango dugula. Hori pentsatzen dugu guk, bai eta proiektua idazten hasi baino lehen ere. Baina, gure kalkuluen arabera, uste dut horrela dela. Bi gauzak harritzen naute. Ez dakit Alderdi Sozialistaren beraren barruko tirabiren ondorio izango den, baina apur bat harritzen nau bozeramaileak gai honetan duen jarrerak. Gainera, bazterrak nahasten ari da gain honetan.

Lehenik, badakigu baliabide eskasia dagoela. Lopezen gobernuak berak onartu du, Ogasun sailburu berriaren bidez. Orduan, logikoki, ondo dago proiektu osoa finantzatzeko eskatzea, baina Alderdi Sozialista alderdi errealista izan da beti, eta posibilista. Horrenbestez, jakina, dena eska dezakegu. Bizkaibuseko autobusak doan izateko ere eska daiteke, baina, logikoki, badakigu zer egoeratan gauden, badakigu zer baliabide dauden

Etxano. Quizas estemos equivocados y podríamos cambiar nuestro voto, pero tendríamos que saber cual es el coste de este proyecto. Nosotros con que la Diputación diga: vamos a pagar el coste del proyecto, estamos de acuerdo. Lo que no se puede, es dejar todas las obligaciones para el Ayuntamiento de Amorebieta y ellos soltar 600.000 euros. Me parece que no es una buena idea, porque de esa forma también nos podrían dejar todas las demás carreteras. Creo que el coste va a ser muchísimo mayor, a no ser que haya algo por ahí y me lo digas.

Sr. Alcalde:

No hay nada más de lo que aparece en el convenio, logicamente. Pero yo creo que estas menospreciando las cantidades de dinero que se ofrecen y estas menospreciando un poco cual es el proyecto, cual es la memoria valorada del proyecto y cual va a ser el proyecto definitivo. Yo creo que se financia o se va a poder financiar, más de la mitad de lo que es el propio bidegorri. Es lo que pensamos nosotros desde antes incluso de empezar a redactar el proyecto. Pero por los calculos que tenemos, yo creo que es así. Hay dos cosas que a mí me chocan y no se si es fruto de la tensión interna que vive el propio Partido Socialista, pero, me choca un poco la actitud que tiene el portavoz en este asunto. Además, esta mezclando las churras con las merinas, en este asunto.

Primero, sabemos que hay escasez de recursos, pero lo ha reconocido hasta el propio Gobierno Lopez, con su flamante Consejero de Hacienda a la cabeza. Entonces, logicamente, pedir que se financie la totalidad del proyecto me parece muy bien, pero el Partido Socialista se ha caracterizado siempre por ser un partido realista y también posibilista. Entonces, logicamente se puede pedir todo, se puede



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

aurten, eta badakigu 2010eko edo 2011ko baliabideak ere txikiak izango direla. Behintzat, hori dago aurreikusita. Baliabideak ez dira hobeak izango. Herri Lan Sailaren beraren aurrekontua nabarmen txikituko da. Beraz, aurten dirua zegoen, diru kantitate hori zegoen: 600.000 euro. Ez da diru kantitate txikia, 100 milioi pezeta dira, eta niri 100 milioi pezeta 600.000 euro baino askoz gehiago dela iruditzen zait, baina dirua da, azken batean. Eta horrenbestez, ez dut ondo ulertzen Alderdi Sozialistaren jarrera. Egia esan, ez dut ulertzen. Eta hori, kontuan harturik alderdi horrek zenbait erakunde kudeatu izan dituela. Besterik gabe, obra asko egin daiteke aurten. Eta horrez gain, beste parametro bat dago, Alderdi Sozialistako bozeramaileak berak agian ezagutzen ez duena; alegia, Etxanoko Auzo Elkarteak on deritzo hitzarmenari, argi eta garbi, nahiz eta, beste gai batzuetan, bereziki kritikoa izan udal ekintzarekiko. Hortaz, ez dakit auzokoek gehiago eska zezaketen edo hitzarmenean azaltzen ez diren gauzak eska zitzaizketen. Baina uste dute neurri erreala dela eta egingarria dela, gaur egungo irisgarritasuna hobetzeko lehen urratsa dela, eta pozik daude. Hortaz, nire ustez, Alderdi Sozialista errealitateetik apur bat kanpo dago edo ez daki zein diren Etxanoko auzokideen beharrizanak. Agian, hori izan daiteke arazoa.

Calvo and., PP:

Bueno, egia esan, hau harrigarri samarra da, nik neuk hitzarmena defendatu behar izatea, ondo aurkeztuta dago eta.

Aldeko botoa eman dut. Baina egia

pedir que se ponga el Bizkaibus gratis, también, pero, lógicamente estamos en el mundo en el que estamos, sabemos cuales son los recursos este año y sabemos que los recursos para el año 2010 o 2011, no van a ser mejores, por lo menos es la previsión que hay. No van a mejorar los recursos. El propio Departamento de Obras Públicas va a tener un bajón presupuestario importante. Con lo cual, este año había dinero, había esta cantidad de dinero, 600.000 euros, es una cantidad nada despreciable, son 100 millones de las antiguas pesetas, 100 millones de las antiguas pesetas a mí me suena mucho más que 600.000 euros, pero es dinero. Y entonces, es que no entiendo muy bien cual es la actitud del Partido Solialista, la verdad es que no la entiendo. Más en un partido que a gestinado algunas instituciones. Sin más, este año se puede hacer bastante obra. Y luego hay otro parametro, que el propio portavoz del Partido Solialista igual lo desconoce, pero es que la propia Asociación de Vecinos de Etxano, quien ha sido especialmente crítica con la acción municipal, pues ha saludado este convenio de una forma clara. Entonces, lógicamente, no sé si los propios vecinos, que podían haber pedido más o pedían haber pedido incluso cuestiones que no aparecen en el convenio, pues les parece que es una medida real, una medida posibilista, una medida que es un primer paso hacia hacer una accesibilidad, una mejora con respecto a lo que hay actualmente y están satisfechos. Entonces, yo creo, que está un poco fuera de la realidad el Partido Socialista, o no conocen las necesidades de los vecinos de Etxano. Quizás, ese puede ser el problema.

Sra. Calvo del PP:

Bueno la verdad es que eso parece un poco chocante, que sea yo la que tenga que defender este convenio, porque está bien presentado.

He votado favorablemente. Pero es



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

da entzun ditudan gauza batzuek zur eta lur utzi nautela. Kontua da Foru Aldundiak errepidea guri lagatzeko eskubidea duela, besterik ez. Bidegorriarena Udalaren erabakia izan da. Guk eskertzen dugu, eta uste dut oso ondo eginda dagoela. Eta horregatik, 600.000 euro ematen dizkigute. Dena den, Aldundiak egin dezakeen gauza bakarra errepidea dagoen moduan ematea da, eta nik galdetu nuen ea ondo zegoen edo arazorik ote zegoen. Ezin hobeto dagoela esan zidaten, errepidea primeran dagoela. Horixe da Aldundiak egin behar duena. Eta Udalak 600.000 euro emango dizkigun hitzarmen bat lortu du. Ondo etorria izan dadila. Hemendik aurrera, gutxienekoa jasoko dugu.

Beraz, gu pozaren pozez gaude.

Badakigu aurrekontu handiagoa beharko dela, baina, hain zuzen, hitzarmena I. faseari dagokio. Gainerakoa dirua dagoenean egingo da, baina, dagoeneko, diru kantitate hori jaso dugu. Alderdi Sozialistak errepideei buruzko akordio asko onartu du EAJrekin batera, Batzarretan, eta orain A-8ko bidesariarena aipatzea... Lehenengo egunean, mozio bat aurkeztu genuen, eta zuek gaia atzeratzea bozkatu duzue. Eta ez zuen zerikusirik. Bada, egia esan, apur bat harritzen nau EAJ, barkatu, Alderdi Sozialista gai honetan erakusten ari den jarrerak. Jakina, nik ere uste dut, Davidek ere esan du, uste dut proiektua gutxiesten ari direla, nik ere uste dut proiektu ona dela. Ona dela herriarentzat, ona dela Etxano auzoarentzat, eta denbora luzean berriro ikusiko ez dugun diru kantitate bat lortu dugula.

Castellet jn., PSE-EE:

Ea, tira. Ni ez nau harritzen ez horrek ez beste horrek. Herriarentzat ona dela eta Etxano auzoarentzat ona dela ez dugu zalantzan jartzen. Diru kantitatea

verdad que he estado escuchado cosas que me han dejado bastante alucinada. Es que la Diputación Foral lo único que tiene derecho es a cedernos la carretera. Lo del bidegorri es una cosa que ha decidido hacer el Ayuntamiento, cosa que lo agradecemos y que creo que esta muy bien hecha. Y por eso nos, dan 600.000 euros. Pero Diputación lo único que nos puede hacer es darnos la carretera tal cual, como esta, y yo pregunté, si estaba bien, o había algún problema. Me dijeron esta perfectamente, la carretera esta estupendamente. Es lo único que tiene que hacer Diputación. Y el Ayuntamiento ha conseguido un convenio que nos da 600.000 euros, bien venido sea. Lo que va a venir a apartir de ahora, va a ser minimo.

Por lo tanto, nosotros estamos encantados con esto.

Sabemos que va a ser más el presupuesto, por eso pone en el convenio Fase I. El resto se podrá hacer cuando se tenga dinero, pero ya hemos recibido esa cantidad de dinero. Que el Partido Socialista, cuando en Juntas ha aprobado todo tipo de acuerdos en carreteras con el PNV, que venga ahora diciendo que el peaje de la A-8, vamos a ver. Nosotros hemos presentado el otro día una moción y habeis votado que se aplace el tema. Cuando no tenía nada que ver. Pues la verdad es que me sorprende un poco la actitud que esta teniendo el PNV, perdón el Partido Socialista, en este tema. Hombre, yo también creo, David también lo ha dicho, creo que se esta menospreciando este proyecto, yo también creo que es bueno. Que es bueno para el pueblo, que es bueno para Etxano y que hemos conseguido una cantidad de dinero que no la vamos a ver en mucho tiempo.

Sr. Castellet del PSE-EE:

Vamos a ver. A mi no me sorprende ni eso, ni lo otro. Que es bueno para el pueblo y que es bueno para Etxano, es que no lo ponemos en duda. Lo que si ponemos



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

jartzen dugu zalantzan. Ez esan errepidea ematen digutela, errepide horretan obrak egin behar dira eta. Bidegorria egiteko, errepidea handitzeko, eta gero, gure kontu geratuko da betirako. Aldundiak esango balu oso-osorik ordainduko duela, ez litzaiguke axola izango gure kargura geratzea. Kostua ez da 600.000 eurokoa izango, eta ez dut uste 1.200.000 eurokoa denik. Izan ere, garestiagoa izango delakoan nago. Hori esaten ari gara gu.

Ez dezala Davidek esan garai txarrean gaudela. Dirurik ez dagoela badakigu, baina Udalak ere ez du dirurik. Udalak sobera du dirua, ala? Eta beharbada 2.000.000 euro ingurukoa izango den zorpetzeaz ari gara. Ez zaigu dirua sobratzen. Nik zera esaten dut: hitzarmen honetara iritsi behar badugu, eska diezaiogun Aldundiari proiektuaren kostu osoa ordaintzeko, besterik ez. Aldundiak ordaintzen ez duen guztia guk ordaindu beharko dugu. Eta guk ordaindu behar badugu, beste lekuren batetik kendu beharko dugu, eta ez gaude kontra, inola ere ez. Aitzitik, esan dut duela urte batzuk proposatu genuela Etxano auzoan obra bat egitea, uste dugulako benetako arriskua dagoela, gainera, igotzen eta jaisten den jendearentzat. Baita errepideari dagokionez ere, oso estua da eta. Eta hemen, proiektu honetan, lurren jabetza kentzea, errepidea zabaltzea eta bidegorria egitea aipatzen da. Hau da, bidegorria egiteko 600.000 euro ematen dizkigutela baino askoz gehiago esaten da. Askoz gehiago esaten da, eta uste dut horren guztiaren kostua 2 milioi eurokoa izango dela, gutxienez. Eta hori esaten dugu guk, Udalarentzat hitzarmen ona ez dela. Etxano auzoarentzat, ostera, bai, hitzarmen ona da. Jakina ona dela haientzat. Etxanoko edo beste edozein auzotako irisgarritasuna hobetzen duen guztia ona da. Baina, nire ustez, presioa egin eta diru apur bat atera beharko genuen.

en duda es la cantidad de dinero. No me digas que nos ceden la carretera, porque en esa carretera hay que hacer obras. Para poder hacer el bidegorri, para ampliarla y luego queda a nuestro cargo para siempre. Que no nos importaría que quedará a nuestro cargo, siempre y cuando diga el coste lo pagamos íntegramente. El coste no va a ser 600.000 y dudo mucho que sea 1.200.000 y se irá para arriba. Eso es lo que estamos diciendo nosotros.

Que no nos diga también David, que es que hay una mala época. Que no hay dinero, ya lo sabemos, pero tampoco lo tiene el Ayuntamiento. ¿O es que al Ayuntamiento nos sobra?. Y estamos hablando de un endeudamiento que nos vamos a ir a los 2.000.000 posiblemente. No nos sobra el dinero. Yo lo que digo es, que si vamos a llegar a este acuerdo, vamos a decir a Diputación que pague el coste del proyecto, sin más. Todo lo que no sea que pague el coste del proyecto, lo vamos a tener que poner nosotros. Y si lo ponemos nosotros, habrá que quitarlo de otro sitio y no estamos en contra, ni mucho menos. Al contrario, yo he dicho que hemos propuesto ya hace años, el que se hiciera una obra al barrio de Etxano, porque creemos que hay un peligro real además, de la gente que sube y que baja. Incluso en el tema de la carretera, porque es muy estrecha. Y aquí en el proyecto se está hablando de expropiaciones, se está hablando de ampliar la carretera y se está hablando de bidegorri. O sea, no se está hablando solamente de que nos dan 600.000 euros para el bidegorri. Se habla de mucho más y creo que el coste de eso se va a ir a los 2 millones de euros, por lo menos. Y eso es lo que decimos nosotros, no es un buen convenio para el Ayuntamiento. Si que es un buen convenio para los del barrio de Etxano, por supuesto que es bueno para ellos. Todo lo que sea una mejora en la accesibilidad para Etxano o para cualquier otro barrio. Pero yo creo que hay deberíamos de haber presionado y haber



Alkate jn.:

Honekin amaituko dut, Antonio. Bi gauza:

Esaten duzuna entzuten ari naiz, baina, egia esan, egiten ari zarena (daturik gabe hitz egitea edo zure ustez izango dena edo izango ez dena esatea) ez da oso zorrotza.

Azken kostua 2 milioi eurotik gorakoa izango dela esatea... Egia esan, Gabonetako loteria gu guztiontzat erosteko kontratatuko zaitugu; izan ere, uste dut bete-betean asmatuko duzula.

Beste gai bat dago. Zornotzar askok erabiltzen du errepide hori, bide hori, eta nolabait, arriskutsua da. Hori dela eta, gizartea –hots, auzokoak– errepide hori hobetzeko eskatzen ari dira. Irisgarritasunak hobera egin dezan. Hain zuzen ere, tarterik arriskutsuena egin nahi da lehen; hau da, kurba gehien eta, esan dezagun, bihurgune gehien dituen tartea.

Oinarrizko gauza bat dago, nire aburuz Alderdi Sozialistak ere uler dezakeena: 600.000 euro gaur, edo ezer ere ez 2012-2013 arte. Hortaz, egoera horretan, edozein udal arduradunek oso argi izango luke zer aukeratu.

Udalarekiko betebeharra ez da hurrengo aurrekontu ekitaldirako betebeharra, ez da 2010erako betebeharra. Epe luzeko betebeharra da, eta ez da datarik zehaztu. Jakina, dirua duenean egingo du Udalak gainerakoa. Dirua duenean eta osoko bilkura honek dagozkion proiektuak onesten dituenen. Baina, hasiera batean, 600.000 euro dira gaur, edo ezer ere ez 2012-2013 arte, eta horrela daude gauzak, hori da errealitatea.

Horrenbestez, harritzen nau, berriro diot, Alderdi Sozialistak, kudeaketa alderdi batek, erakunde asko kudeatzen dituen alderdi batek, 600.000 euro negoziazioaren ondorio direla ez ikusteak.

sacado un algo más de dinero.

Sr. Alcalde:

Acabo con este Antonio. Dos cosas:

Estoy escuchandote, pero, la verdad, hablar sin datos y decir creo que va a ser o creo que va a dejar de ser, que es lo que estas haciendo tú, es poco riguroso.

Eso de que la ejecución final va a ser más de 2 millones de euros, la verdad, es que vamos a contratarte a ti, para comprar lotería de navidad para todos, porque creo que vas a acertar de pleno.

Hay otra cuestión. Es una carretera, un camino, que se utiliza por muchos Zornotzarras y tiene cierta peligrosidad y hay una demanda social, una demanda vecinal para que eso se mejore. Para que se mejore la accesibilidad. Precisamente el tramo más inseguro, es el que se pretende hacer primero, el tramo que tiene más curvas, vamos a decir, y mas recovecos.

Hay una cuestión elemental, que yo creo que hasta el Partido Socialista lo puede entender: son 600.000 euros hoy o nada hasta el 2012-2013. Con lo cual, ante esta tesitura, logicamente cualquier responsable municipal tendría las opciones bastante claras.

La obligación para con el Ayuntamiento, no es una obligación para el próximo ejercicio presupuestario, no es una obligación para el 2010, es una obligación a futuro y no se concreta fecha. Logicamente el Ayuntamiento hará el resto cuando tenga dinero. Cuando tenga dinero y cuando este pleno apruebe los proyectos correspondientes, pero en principio, son 600.000 euros o nada hasta el 2012-2013 y es así, esa es la realidad.

Entonces, es que me sorprende, vuelvo a repetir, que un partido de gestión como el Partido Socialista, que gestiona muchísimas instituciones, no vea, que 600.000 euros, es fruto de la negociación.

La oferta primera era menor. Esto



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Lehen eskaintza txikiagoa zen. Heltze prozesua izan da, eta diru kantitate horretara iritsi ginen. Ni ez nau pozik uzten, eta Aldundikoak beraiek ez daude pozik. Baina nik beti ulertu dut negoziazio bateko alderdiek ez dutela poz-pozik amaitu behar, betiere, batak besteari izugarritzko gola sartzen ez badio, bederen. Beraz, elkarrizketa askoren ondoren adostu genuen diru kantitate hori.

Uda aurretik hasi ginen; izan ere, memoria balioetsia udan egin zen. Ez da kasualitate baten ondorio, prozesu oso baten amaiera baizik. Nik uste dut Alderdi Sozialistak eta zuk, Antonio, nire ustez pertsona zentzuduna baitzara, gauza horiek uler ditzakezuela.

ERABAKIA:

Udalbatzak hamairu aldeko botorekin, EAko Atxurra, PPko Calvo, EB-Berdeako Rodríguez eta Silva jn., EAJ_PNVko Artetxe, Bilbao, Aurtenetxe, Gallastegi, Agirrebeitia, Chamizo, Gandiaga, Madariaga eta Latxaga jn./and.enak; eta aurkako bi botorekin, PSE-EEko Castellet eta Hernández,.

LEHENENGOA: Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan Sailari errepide-tarte hau lagatzeko eskatuko zaio:

- BI-4327: 19,470 kp eta 21,360 kp bitartean.

BIGARRENA: Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan Sailaren eta Amorebieta-Etxanoko Udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmena onestea, aipatutako batzarrari dagokiona.

HIRUGARRENA: Alkatetza-Udalburutzari eskumena emango zaio beharrezkoak diren ebazpen guztiak emateko, erabaki hau egikaritzeko. Horrez gain, eskumena emango zaio, baita ere,

tiene un periodo de maduración y se llega a esta cantidad, que a mi no me satisface y tampoco le satisface a la propia Diputación, pero, siempre había entendido yo, que en una negociación, ninguna de las partes tiene que levantarse totalmente satisfecha, porque le han metido un gol a la otra por toda la escuadra. Con lo cual, esta es una cantidad a la que llegamos después de un periodo largo de conversaciones.

Llevamos con esto desde antes del verano, porque la memoria valorada se hizo en verano. No es fruto de una casualidad, sino el final de todo un proceso. Estas cuestiones, yo creo, que el Partido Socialista y Antonio tú, que yo creo que eres una persona razonable, pues las puede incluso hasta entender.

ACUERDA:

La Corporación por mayoría de trece votos a favor de l@s S@s: Atxurra de EA, Calvo del PP, Rodríguez y Silva de EB-B, Artetxe, Bilbao, Aurtenetxe, Gallastegi, Agirrebeitia, Chamizo, Gandiaga, Madariaga y Latxaga de EAJ-PNV y dos en contra del Sr@, Castellet y Hernández del PSE-EE.

PRIMERO: Solicitar al Departamento de Obras Públicas de la Diputación Foral de Bizkaia la cesión del siguiente tramo de carretera:

- BI-4327: Desde p.k. 19,470 hasta p.k. 21,360.

SEGUNDO: Aprobar el Convenio de colaboración entre el Departamento de Obras Públicas de la Excm. Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano correspondiente a la citada cesión.

TERCERO: Facultar a la Alcaldía Presidencia para dictar cuantas resoluciones sean precisas en orden a la ejecución del presente acuerdo y para la firma del Convenio de Colaboración anteriormente



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

lehen aipatutako lankidetzaz-hitzarmena eta BI-4327 foru-errepidearen (19+470 kp eta 21+360 kp bitartean) titulartasun-aldaketa formalizatzen duen Entrega Akta sinatzeko.

LAUGARRENA: Entrega Akta sinatu eta gero, alta emango zaio BI-4327 errepideko tarteari (19,470 kp eta 21,360 kp bitartean), Udal Ondasunen Inbentarioan.

Eta aztertzeko gai gehiago ez denez egon, bukatutzat jo da bilera goizeko bederatziak eta hamabost direnean. Idazkari naizen honek, akta hau egin eta bertako guztia **EGIAZTATU DUT.**

citado y el Acta de Entrega por la cual se formaliza el cambio de titularidad de la carretera foral BI-4327 del p.k. 19+470 al p.k. 21+360.

CUARTO: Una vez firmada el Acta de Entrega dar de alta el tramo de carretera BI-4327: Desde p.k. 19,470 hasta p.k. 21,360 en el Inventario de Bienes Municipales.

Y no habiendo más asuntos que tratar se dio por finalizada la sesión, siendo las nueve horas y quince minutos, extendiéndose la presente acta de todo lo cual como Secretario **CERTIFICO.**